

Euskal geografiaren berezitasunak

Deia, 1983-06-26.

Herriak, geografiak behartzen dizkien harremanez markatuta geratzen dira betiko.

Euskalerrria, besteak bezalaxe.

Hala ere, Euskadi, eta politikazko boluntarismo batek eraginda, urte luzetan gorde dugu, eta landu ere, itsaso urdin eta mendi berdez osatutako lurra eta baserritarrez, arrantzalez eta artzainez jendeztatua bakarrik balitz bezalako imajina.

Lur lau-idei-horiak ezin zitezkeen gureak izan.

Euskalerrriaren geografia eta historia inon erakutsi ez zizkigutenez, gero, gehienbat Bizkai-Gipuzkoan sortu zen abertzaletasun suhar batek eragindakoa osatu dugu.

Gure kalterako.

Imajina honek eragindako ekintza batzu ez dira onuragarriak.

Geuk beste herriengandik ezberdintasunak ba ditugu, baina baita gure artekoak direnak ere, eta hemen, gainontzeko eskaletan gertatzen den legez, geografiak eragindakoak izan dira.

Jesus Altunak ondo erakutsi duen bezala, ba dira Euskalerrrian geomorfologikoak diren bi alderdi nagusi, mendi gailurrek dibujatzen duten *hegi edo linea* batek Kantabriar itsasora edo Mediterraneora urak joateko *bi isurialdeak bereizten duena: iparreko* isurialdean daude Zuberoa, Nafarroa Behera, Laburdi, Gipuzkoa, Bizkaia eta Nafarroako zati txikia; eta *hegokoan*, Araba osoa eta Nafarroaren zatirik handiena.

Hau *orografi*az, lurraren formak agintzen duen arabera.

Bestalde, *ingurugiroz* adierazgarri diren lau area: 1) Nafarroako Pirinioan dauden mendi gailurrak; 2) Gipuzkoa eta Bizkaiko haran babestuak; 3) Laburdiko iparraldean dauden lautada hezeak, eta 4) Arriberako lautada idorra.

Hau dena ondorio batzuen iturri da:

Kantabriar itsasora jaisten diren ibaiak, zuzenean neurtuta 40 kilometroko tartea besterik ez dago; honek, lurren erosio bertikala sortarazten du, eta haran sakonak. Euriak handiak direnez gero, ibaiek ubideko bi bazterretan dauden lurak eramaten ditu, eta honek ez du laborantzako lur-terrazik formatzen uzten.

Mediterraneorako isurialdean oso bestela gertatzen dira gauzak: Ebro-ren iturritik hasi eta bokaleraino askoz ere bide luzeagoa dagoenez, maldaren makurdura txikiagoa eta patxadatsuagoa da, noski, haranak zabalagoak, eta, bestalde, ibaiak sortzen duen erosioa moderatuagoa, eta lur-terrazak zabalagoak.

Kondizio hoiek denak gure herriaren historia politiko eta kulturean eragin handia izan dute.